



"TEKNIKARI ESPEZIALISTA (MEKANIKA -III. TALDEA)" LAN-POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

2016ko OTSAILAREN 19ko ERABAKIA

BIGARREN ARIKETAREN ETA OPSIZIO FASERAREN BEHIN-BEHINEKO EMAITZAK.

Deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko Gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakia), Teknikari espezialista (Mekanika - III. Taldea) zabaltzeko hautaketa-prozesurako epaimahaiak honakoa iragarri du:

LEHENENGOA.- Aipatutako hautaketa prozesuko bigarren ariketa, praktikoa, egin eta zuzendu ondoren, epaimahai honek ariketa hori dagokion behin-behineko emaitzak atxiki dira. Interesatuek kexa aurkeztu ahal izango dute emaitzon aurka bost eguneko epean emaitzak argitaratu direnetik. Honetarako, idatzi arrazoitu bat aurkeztu beharko dute deialdiko hirugarren oinarrian adierazitako lekuetan, Teknikari espezialista (Mekanika -III. Taldea) lan-poltsa osatzeko hautaketa-prozesurako epaimahaiko idazkaritzari helarazita. AZPkoen Atala, Errektoregoaren eraikina (1. solairua), Leioako Campusa.

BIGARRENA.- Bost eguneko epea ezartzea, lehiaketa-fasean konputa daitezkeen merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko.

HIRUGARRENA.- Hautaketa-prozesuan jarraitzen dutenenetatik inork ez du eskatu Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko azterketa egitea, hortaz, pertsona horiek haien ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte beste merezimenduekin batera.

Lehenengo atalaren arabera erreklamazioa egin behar dutenek merezimenduen alegazioa eta egiaztapena aurkeztu beharko dute erreklamazioarekin batera.

Leioan, 2017ko ekainaren 5ean

Epaimahaiko idazkaria

Eneko Ukar Arrien